

SHARAN BURROW. CSiko Idazkari Nagusia / Secretaria General de la Confederación Sindical Internacional (CSI)

Euskara.

Agur t'erdi. Asko sentitzen dut zuekin ez egotea. Beti egin nahi izan dudan gauzetako bat ELA bisitatzea da, nork daki datorren urteak zer ekarriko duen. Baina zorionak zuen lidergoari, izan ere, ordezkari guztiei zuen mugimendu sindikalaren indarragatik. Eta utz iezadazue, lehenik eta behin, omenaldia egiten lehen lerroko langile horiei, egunero lanera joan baitira pandemian gu bizi ahal izateko. Eta, jakina, osasun-langileez ari naiz, adineko pertsonen zaintzako langileez, haurren zaintzako langileez, beren bizitzarako arriskua izan arren beren lana egin duten komunitateko zaintzako langileez. Heroiak zarete, baina baita garraioko langileak, txikizkako merkataritzako langileak eta gu zerbitzatzeko han egon diren beste batzuk ere, orain konturatzen gara zerbitzu horiek zenbat behar ditugun. Baina baita irakaskuntzako profesionalei ere, nire sindikatuari berari, gauetik goizera online heztera egokitu baitziren, gure hornikuntza-kateei eusten zieten langileei, hots, ekoizpen-langileei. Horretan pentsatzen dugunean, pandemia honek erakutsi du langileak oso baliotsuak direla. Orain, munduak ezagutu egin behar ditu, bere eskubideak aitortuz, inoiz pasatu behar ez gunden garai bat bizitzen ari garela, eta krisi-konbergentzia bat da. Pandemiaren aurretik, desberdintasun globala genuen, desberdintasuna genuen nazio barruan eta nazioen artean, gure lan-araudiak hausten ari zirela. Mundu-mailan, lan-merkatua apurtuta daukagu, eta desberdintasuna sortzen ari da, % 60ko lan informalarekin, orain mundu osoan, eta lan prekarioa edo ez-segurua, baita gure lan-kontratu formalenetan ere. Baina, jakina, klima-krisia ere badugu, eta larrialdia da.

Planeta egonkortu behar dugu, eta 2030erako lanaren erdia baino gehiago eginda izan behar dugu. Hori mingarria da, sektore guztietan trantsizioak esan nahi du, baina gure etxe komunean etorkizuna izan dezagun gertatu behar du. Eta, orain, pandemiak agerian utzi ditu haustura horiek, baina erronka berriak ere eman dizkigu osasun-arazo globalen inguruan. Txertoen nazionalismoa flageloa da. Mundu osoko pertsonen elkartasunaren alde borrokatu behar dugu, denak salbu egon arte, inor ez dago salbu. Erreibindikazio multzo bat daukagu, honi heltzen diona, kontratu sozial berria deritzona: lana, lana eta lana, klimarekin adiskidetsuak diren lanak, bidezko trantsizioarekin adiskidetsuak direnak; eskubideak nahi ditugu; enpresen zigorgabetasunari amaiera eman nahi diogu, derrigorrezko bidezko arduraz; eta lan osasuna eta segurtasuna funtsezko eskubidea izatea nahi dugu. Kontratu sozial unibertsala nahi dugu. Hain zuzen, ikusi nahi dugu berdintasuna dugula, ez bakarrik diru-sarreraren gutxieneko soldata eta guztiontzako negoziazio kolektiboaren berdintasuna, baizik eta genero eta arraza berdintasuna. Eta etorkizun inklusiboa nahi dugu, gizarte-kontratu bateko elementu horiekin, baina baita Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) ere, pobrezia amaiera emateko; guztiok etorkizun itxaropentsua, baikorra eta erresistentea izan dezagun. Eta mundu osoan hazten ari diren gatazkei amaiera eman nahi diegu. Lan asko dugu egiteko. Baina nire apustua mugimendu sindikalean dago. Indarra dugu, elkartasuna dugu eta berdintasunezko eta bidezkoagoa den etorkizun baten alde borrokatzeko borondatea dugu. Mila esker zuen adoreaengatik.

Castellano.

Saludos. Lamento mucho no estar con vosotros y vosotras. Una de las cosas que siempre quise hacer es visitar ELA, quién sabe qué traerá el próximo año. Pero felicidades a vuestro liderazgo, de hecho a todos los delegados y delegadas por la fuerza de vuestro movimiento sindical. Y permitidme, en primer lugar, rendir homenaje a esos trabajadores y trabajadoras de primera línea, quienes de hecho han ido a trabajar todos los días para hacer posible que vivamos durante la pandemia. Y, por supuesto, me refiero a los trabajadores y trabajadoras de la salud, me refiero a los trabajadores y trabajadoras del cuidado de personas mayores, del cuidado infantil, esos trabajadores y trabajadoras del cuidado comunitario que han hecho su trabajo a pesar del riesgo para sus propias vidas. Sois héroes, pero también lo son los trabajadores y trabajadoras del transporte y los trabajadores y trabajadoras del comercio minorista y otros que han estado allí para servirnos, todos esos servicios de los que ahora nos damos cuenta de cuánto dependemos. Pero también a profesionales de la enseñanza, a mi propio sindicato, que se adaptaron a educar en línea de la noche a la mañana, a los trabajadores y trabajadoras que mantenían nuestras cadenas de suministro, los trabajadores y trabajadoras de producción. Cuando pensamos en ello, esta pandemia ha demostrado cuán valiosos son los trabajadores y trabajadoras. Ahora necesitamos que el mundo los reconozca, que reconozca sus derechos porque estamos viviendo una era con la que nunca esperábamos tener que lidiar, y es una convergencia de crisis. Antes de la pandemia, teníamos desigualdad global, teníamos desigualdad dentro y entre naciones porque nuestras regulaciones laborales se estaban rompiendo. A nivel mundial, tenemos un mercado laboral roto y está creando desigualdad con un 60 por ciento de trabajo informal ahora en todo el mundo y demasiado trabajo precario o inseguro, incluso en nuestros contratos de trabajo más formales. Pero, por supuesto, también tenemos la crisis climática y es una emergencia.

Necesitamos estabilizar el planeta y tenemos que tener más de la mitad del trabajo hecho para 2030. Eso es doloroso, significa transiciones en todos los sectores, pero tiene que suceder para que tengamos un futuro aquí en nuestro hogar común. Y ahora la pandemia, ha dejado al descubierto esas fracturas, pero también nos ha dado nuevos desafíos en torno a los problemas globales de salud. El nacionalismo de las vacunas es un flagelo. Tenemos que luchar realmente por la solidaridad de las personas de todo el mundo hasta que todas estén a salvo, nadie está a salvo. Entonces tenemos un conjunto de reivindicaciones que abordan esto, se llama el nuevo contrato social: trabajos, trabajos y trabajos, trabajos amigables con el clima, con la transición justa; queremos derechos; queremos poner fin a la impunidad de las empresas con la diligencia debida obligatoria; y queremos que la seguridad y salud en el trabajo sean un derecho fundamental. Queremos un contrato social universal. De hecho, queremos ver que, tenemos igualdad, no solo de ingresos con un salario mínimo vital y negociación colectiva para todos y todas, sino que queremos ver la igualdad de género y raza. Y queremos un futuro inclusivo que se base en la estabilidad de nuestra seguridad común con esos elementos de un contrato social, pero también con los ODS para poner fin a la pobreza, para todos tengamos un futuro esperanzador, optimista y resistente. Y queremos poner fin a los conflictos que están aumentando en todo el mundo. Tenemos mucho trabajo por hacer. Pero mi apuesta está en el movimiento sindical. Tenemos fuerza, tenemos solidaridad y tenemos la voluntad de luchar por un futuro más igualitario y más justo. Gracias por vuestro coraje.